

TERESITA BULLYING-EN BIKTIMA

Teresa Lisieuxkoren ama, bularreko minbiziaz jota hilko da 1877ko, abuztuaren 28an. Hunkigarriak amaren azkeneko egunak eta heriotza (ik. Esk A, 12a – 12i). Teresatxok lau urte eta zortzi hilabete besterik ez ditu. Bere ahizta zaharrenak 17, Paulinak 16, Leoniak 14 eta Zelinak 8.

Ahizta bakotzak bere eragina izango dau ahizta txikiaren bihotz samurrean. Batez be, Paulinaren eskua ikusten da. Umetatik Paulina izango dau bere eredu eta ideal. “Beti neure eredutzat izanik, zure antzeko izan nahi nuen gauza guztietan” (Esk A, 81^a), idatziko deutso bere heldutasunean. Ama hil ondoren, Paulina hartuko dau bere amatzat (ik. Esk A, 13a). Paulina izango da aurrerantzean bere “amatxo” kutuna. Berau izango da gurasoen ondoren, Teresarengan eragin gehien izango dauan pertsona.

Ze ederto beteko dauan amaren hutsunea! Horretarako esku berezia dauko euki be Paulinak. Amaren antzik handiena be berarena da. Bai gorputzez eta bai arimaz, Zelia Guerin berbera dirudi. Paulinarengan bere ama berreskuratuko dau Teresak. Ez da larregi puztu behar amaren heriotza Teresaren bizitzan. Amaren falta bikain beteko dau Paulinak. Heziketarako aparteko ezaugarriak ditu. Teresita bera be harrituta dago bere “amatxo” laztanaren eskuaz: “Batzuetan neure buruari

galdetzen diot nola jakin duzun ni hain maitasun handiz, hain samurtasun handiz hezitzen, egi-egia baita ez zenidala pasatzen uzten akats bat bera ere. Ez zenidan sekula ere haserre egiten arrazoi gabe, baina erabaki bat hartzen zenuenean ez zenuen sekula ere atzera egiten” (Esk A, 18i).

Ondorengo berbak benetan esanguratsuak: “Zurea izan zen haurtzarotik liluratu ninduen ahotsa, eta orain zure antzekoa naizela esaten entzuteko poza dut” (Esk A, 53i). Pare bat hila-bete hil aurretik, “taldearen buru doan enara” bezala ikusten dau bere ahizta “amatxo: “Oi ene Ama, zein ederra den dago-kizun zatia!... Benetan zure duin da, gure familiako hautatu zaren horren duin; bere laguntaldearen buru ikusten den enara txiki horren antzera eta erreinu berrira gidatu behar dituen bidea taxutzen duenaren antzera, bidea erakusten diguzun horren duin” (TG 216). “Zeruan bakarrik jakingo duzu zer zaren niretzat... Niretzat lira bat, kantu bat zara... musika-kutxa bat baino askozaz gehiago; tira! hori ezer esaten ez didazun ueetan ere bai” KH 11.9.2). “Ez dago zu bezelako besterik lurrean. Oi!, zein maite zaitudan!” (KH 18.9.1).

Buissonnets-eko txaletean

Luis, bere emaztea hil eta bi hilabete eta erdira, Alençonetik Lisieux-era aldatzen da bizitzen. Zergaitik hartzen dau erabaki handi hori? Arrazoi bi ditu buruan. Bata, bere emazteak hil zorian gurari hori agertu eutsolako. Amaren borondatea zan bere neba Isidoro eta koinataren alboan laguntza eta babesa ez jakela faltako ez bere senarrari eta ez bere alaba hain gazteei. Kontuan izan, alaba zaharrenak ez dituala 17 urte baino eta txikienak lau urte pasatxo baino ez. Luisek berak be ondo eza-gutzen ditu bere koinatu-koinataren zuhurtasuna eta fintasuna.

Badago beste arrazoi bat be Luisen buruan. Ez dau aurkitzen Alençonen bere hiru alaba txikientzako ganorazko ikastetxerik. Eta ez dau nahi Le Mans-era bialtzea bere alaba nagusi biak

bezala. Ez bakarrik Le Mans uria urrin geratzen dalako, baita bertan bizi zan bere emaztearen ahizta mojea hil zalako be.

Jakitun dago Luis badagoala Lisieuxen beneditar mojen ikastetxe egoki bat bere alaben heziketarako. Bere alaba nagusi bien aholkua jaso ondoren, Lisieux-era aldatzea erabakiko dau. Familiako erabakiak elkarrizketaren bidez hartu izan ditu eta aurrerantzean be horixe izango da haren jokabidea. Nahiz eta Alençonen itzi behar bere ama Fany alarguna eta bere hainbat bihotzeko adiskide, gertu dago Luis bere alaben onerako edozer sakrifizio egiteko. Baita pena hartzen dau hain baketsu eta atsegin jakon “Pavillon” dorretxea iztean be... Han bai sentitzen zala pozik bere gustuko esku-lanak egin eta liburuak irakurri eta zer esanik ez otoitzerako!

1877ko azaroaren erdirantz aldatuko da Luis bere alabekin Lisieux-era. “Buissonets” deritxon txalet dotorea aukeratuko dau bizitzeko. Bertatik ikuspegi ederrak ditu Lisieuxko uria eta inguruak kontenplatzeko. Baita badau baratze polit bat be lorak zaindu eta zuhaitzak euron adarretan txori kantariak habiak egin eta hara eta hona hegan ibilteko!

Hementxe biziko da Teresatxo hamar urte pasatxo aitaren eta ahizten maitasunaz inguraturik! Gainera, aldakuntza honek amaren heriotzaren zartada mingarria bihotzetik urruntzen lagunduko deutso baita gainerako etxekoei be. 18 urte igaro ondoren, Teresak honela gogoratuko ditu bere sentsazioak: “Nik ez nuen inolako nahigaberik izan Alençon uztean; haurrek gogoko dute aldatzea, eta pozik etorri nintzen Lisieux-era” (Esk A, 13 i). “Nire bizitza bare eta zoriontsu zihoan. Buissonnets-en neure burua maitasunez ikusteak haziarazten ninduen, nolabait esateko” (Esk. A, 22a).

“Notre Dame du Pré” Abadian

Zortzi urte eta erdira arte ez da joango Teresa ikastetxera. Bere lehenengo ikasketak bere etxean egingo ditu. Bere ahizta nagusi

biak izango dira bere andereño maitekorrak. Maria idazten irakasteaz eta Paulina gainerako guztiaz arduratuko dira. Kurtsoaren amaiera handikiro ospatzen eben etxean. Ahiztak antolatzen ebezan itzaldiak eta beste guztia. Eta aitak egingo dau buru eta baita diplomak banatu be. Zeremonia oso polita benetan!

Arratsaldetan aitagaz urtengo dau eguneroko ibilaldia egitera. Ez dira etxeratuko herriko elizetan aldareko Sakramentu Santuari ikustaldirik egin barik. Ezta bidean aurkitzen ebezan eskalei eskupekorik emon barik be.

1881eko urriaren 3an, beneditar mojen Ikastetxean jarraituko ditu bere etxean hasitako ikasketak. “Notre Dame du Pré” da Abadia honen izena. Jatorri handikoa historian zehar eta Lisieuxko departamentuko ikastetxe famatuena. Teresaren garaian 80 ikasle inguru ditu. Irakasleak mojak, laikoak eta elizgizonak dira. Oinarrizko ikasgai bezala emoten dabez: gramatika, matematika, geografia, historia eta kristau-ikasbidea. Eta osagarritzko ikasgai bezala erakusten dabez: musika, tapizeria, ingeles, josten, margotzen, dantzan, brodatzen. Bizitzarako neska gano-razkoak eta kristau gaurkotuak prestatzea izaten zan asmoa.

Ikastetxe honetan gehienak barruko ikasleak izaten ziran eta besteak ikasle erdi pentsionistak. Honeek goizeko zortzietan sartu, bertan bazkaldu eta arratsaldeko seietan urteten eben. Hauxe izango da Teresatxoren kasua be. Zortzi hektarea dituan eremu eder baten erdian egoan Abadia, baebazan pasealeku eta lorategi eta zuhaitz zoragarriak eta jolastoki aproposak bai aire librean eta bai aterpean. Garai haretako aurrerapenik ez jakon falta. Dutzak ur bero eta hotzagaz, bainu-gelak, ikasgelak lasaiak eta logelak erosoak.

Bullying-en erpetan

Teresatxo hain dago ondo gertauta, bera baino zaharrago diran neskatoen ikasgelan ipiniko dabe. Zuzendaritzak jakitearen arabera egiten ditu taldeen sailkapenak. Bere ikasgelako gaztee-

na Teresa dogu. Beste danak urte batzuk zaharragoak. Edade horretarako bata besteengandik diferentzia handiegia! Gaur egun ez dira, zorionez, gauzak holan egiten. Larrutik ordainduko dau Teresitak garai haretako eskolak antolatzeako era.

Nahiz eta ikasgelako gazteena izan, bera da nota onenak ataritzen dituana. Bere klaseko ikaskideak ikastetxean bertan bizi dira eta bera, ostera, bakarrik arratsaldeko seietara arte. Holako ikastetxeetan, beti be, “barrukoen eta kanpokoen” tira-birak erraz sortzen dira. Bere ahizta nagusiei esker, egunero ondo baino hobeto orraztuta eta dotore jantzita agertzen da Teresa ikastetxean. Mojak eta beste irakasleak guztiak be liluraturuta dagoz Teresatxogaz. “Ikastun fiña, burua oso argia eta akatsik gabeko portaera” izango da bere irakasle dan Saint-Léon moja gaztearen iritzia. Ez da ba harritzekoa, irakasleak kolko izatea!

Baina ikaskideen artean bada inbidia. Neskato gangarrenak jelsiaz josita marmarrean dihardue. Badago euron artean hamalau bat urteko neskato tonta gangar bat ikas lagunen buruak berotzeko apartekoa. Inbidiaz urtzen, edozer deabrukeria Teresatxoren kontra xaxatzen dongea. Ez zan inoiz kexatzen Teresatxo, baina sarritan ezin jasan ikaskideen zirikada garratzak eta negarrari emoten eutson. Eta orduan burlaka “negarti” esaten eutsoen. Hamahiru edo hamabost urteko neskatoak ez dabe errukirik eurak baino gaztetxoago bat zerbait nabarmentzen danean! Min emoteko aparteko garraztasuna darioe!

“Bullying”ak beti izan dira ikastetxeetan. Eta baita izango be. Izan leiteke gaur egun Bullying-en kasuak detektatzeko kontzientzia gehiago sumatzea. Baina ez dira asko izango Teresatxok beste bullying-en efektu tamalgarririk jasandako ume txo eta gaztetxorik. Penagarria bere kasua! Holantxe urteak joan urteak etorri. Bost urtean gorriak ikusiko ditu ikastetxean. Bere aitak atara ez baleu ikastetxe haretatik, txarrena gertatu leikion Teresatxori!...

Ez da bidezkoa Teresaxori lagunekin moldatzeko zailtasunak eukazala leporatzea be! Ez eukan inondiko eragozpenik bere adineko lagunekin gozatzeko. Esaterako, ze ondo konponduko dan beragaz Jaunartzea egin ebenekin. Beste gauza bat da ikasgelako lagun gangarrekin jazoten jakona...

Teresitak badau Ikastetxean beste arazo bat be. Astialdian mojei gustatzen jaken ikasleak jo eta ke saltoka eta korrika jolasten ikustea. Teresari jolas batzuk atsegin jakozan baina ez beste batzuk. Ez jakozan gogokoak fisikoki jolas gogorak ziranak. Bai, oster, bere adineko lagunekin berak asmatutako ipuinak eta pasadizoak kontatzea, lorak zaintzea, hilda aurkitzen ebazan txoritxoei lurra emotea, ermitau bilakatzea...

Normalean buru argi eta bihotz sentibera diranei ez jakez gustatzen jolas neketsuak eta gogorak. Teresatxo gaur bizi izan balitz, ez zan ibiliko astialdian futboleak edo errugbian edo harri jasoten edo esku-pilotan. Eta bai, oster, bibliotekan sartuta liburuak irakurri eta irakurri edo lorategiak eta zuhaitzak zaintzen. Ez zan aspertuko ipuinak asmatzen edo solasantzerkiak antolatzen edo olerkiak idazten. Pozaren pozez arituko zan pintatzen edo harpa eta lira jotzen. Orduak igaroko ebazan marrazki bizidunak ikusten...

Konklusio lez, hona hemen Teresak hogeita bi urterekin zelan gogoratzen dauan oraindino bizi-bizi ikastetxeko esperientzia latza:

”Zortzi urte eta erdi nituen nik Leonia barnetegitik irten zenean eta nik Abadian haren lekua hartu nuenean. Maiz entzun izan dut esaten ikastetxean igarotako denbora dela onena eta bizitzako zoriontsuena; baina niretzat ez zen hala izan. Han eman nituen bost urteak niretzako tristenak izan ziren. Zelina maitea lagun izan ezik, ezin izango nuen iraun han hilabete ere, gaixotu gabe... Lur hautatuan, berarentzat beren-beregi egindakoan erro hauskorak sartzen ohitu zuten loretxo gaixoa. Horregatik oso gogor egin zitzaion bere burua ikustea era

guztitako loreen artean, askotan batere sustrai samurrik ez zutenen artean, eta guztientzako zen lurrean bizi izateko beharrezko zukua aurkitu beharrez!...

Zuk ongi irakatsi zenidan, ene Ama maite, eta ikastetxera heldu nintzanean, neu nintzen nire adineko haurren artean aurreratuena. Ikasle guztiak ni baino handiagoak ziren ikasgela batean jarri ninduten. Haietariko bat hamahirutik hamalau urte artekoa zen, ez zen buru argikoa, baina hala ere bazekien ikasleen gain jartzen, baita irakasleen gain ere. Hain gazte ikusirik, ia beti neure eskolan aurrengo eta moja guztiek maite nindutela, barruko ikasle batengan harritzekoa ez den bekaitzak jo zuen, antza, eta hainbat erataro ordainarazi zizkidan neure garaipen txikiok...

Neure izaera beldurti eta ahulaz ez nekien neure buruaren alde egiten, eta isilean negar egiteaz asaskatzen nintzen, sufritzen nuenaz kexatu gabe ezta zure aurrean ere. Baina nik ez nuen bertuterik nahiko bizitzako mixeria hauei gaina hartzeko eta nire bihoztxo gaixoak asko sufritzen zuen... Zorionez, arratsaldero itzultzen nintzen aitaren etxera, eta orduantxe zabalitzen zen nire bihotza (...) Bazuen gaixoak familiako poztasun gozo hauen beharra; hauek gabe barnetegiko bizitza latze-gertatuko zitzaion” (Esk A, 22a – 23a).

Eta astialdiko jolasaldiei buruz beste hau dakar:

“Sarritan, jolasaldietan, zuhaitz baten kontra jarri eta ikuskitzuna begiratzen nuen, gogoeta serioetan murgildurik. Nik neure gogoko jolas bat asmatu nuen; zuhaizpetan hilik aurkitzen genituen txoritxo errukarriei lur ematea zen. Ikasle askok lagundu nahi izan zidaten, eta horrela gure hilerrria polit-polita izan zen, zuhaitz eta lorez jantzia, gure hegaztien tamainaren arabera. Eder zitzaidan burura etorri ahala nik neuk asmatzen nituen istorioak kontatzea ere. Orduan nire lagunak inguruan biltzen zitzaizkidan adi-adi, eta batzuetan zenbait ikasle nagusik ere bat egiten zuten entzule-taldearekin. Istorio berak egun

batzuetako iraupena izaten zuen, gogoko bainuen, geroago eta interesgarriago egitea, sortzen zituzten zirrarak eta nire lagun-
nen aurpegietan ageri zirenak ikusi ahala. Baina laster nire irra-
kasleak debekatu egin zidan neure hizlari-lanari ekitea, jolas-
ten eta arineketan ikusi nahi baigintuen, eta ez pentsatzen...”
(Esk A, 37a).

A. Olea